

## **Aste honetan jokatu dira Orona IdEO Innovation Cityko canpuseko barne txapelketak.**

2015/01/09

Abendu eta urtarrila bitartean jokatzen dira fakultate guztietako barne txapelketen finalak eta aste honetan Orona IdEO Innovation Cityko canpusekoak jokatu dira.

Urtarrilak 7an, jokatu zen areto futbol txapelketa kopa eran, guztira 64 partaide 10 taldeetan banatuta. 5 partidu jokatu ondoren, irabazleak Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza graduako 2. mailako ikasleak izan ziren.

Urtarrilak 8an, berriz, saski 3x3 eta boleiko txapelketak jokatu ziren. Saskibaloian, 42 partaide izan ziren 12 taldeetan banatuta, eta 6 partidu jokatu ondoren, garaipena, Energiaren Ingeniaritza graduako 1. mailako "Torren" taldeak lortu zuelarik.

Boleiaren kasuan, 53 izan ziren partehartzaileak, kasu honetan Energiaren Ingeniaritza graduako 1. mailako "Mutilak" taldeak lortu zuelarik garaipena.

Partiduen artean, partaide guztientzat luntz bat eman zen, bertan ikusitako giro onaren adierazgarri izan zena.

Eskerrik asko partehartzaileei eta antolaketa lagundu zuten ikasle laguntzaileei.

Argazki gehiago [facebookean](#)

